

Marmari Leizako aldizkaria

17. zenbakia / 2008ko abendua

Leitzari begira

-Ainara Rodari elkarriketa.

-Zertan da Leitza?

-Leitza, Luzeren begietan.

-¡Hablame en cristiano!

-Leitzaren bila, liburutegian.



zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena.

4-8. or. Ainara Rodari elkarriketa.

9. or. Testa.

10-13. or. Zertan da Leitza?

14-15. or. Leitza, Luzeren begietan.

16-19. or. ¡Hablame en cristiano!

20-23. or. Ipuina.

24-25. or. Leitzaren bila, liburutegian.

26. or. Bitxikeriak.

27. or. Ikusi Makusi, zer ikusi?

28. or. Eta zuk, zer diozu?

Hemen gaituzue, berriz ere

Marmari aldizkariak etenaldi bat izan du aurten. Leitzako euskara zerbitzuan gertatu den hutsunearen ondorioz, ekaina aldera argitaratu ohi genuen zenbakia aurten ez da kaleratu.

Euskara zerbitzua irailaren erditik aurrera berriz abian da, ordea, eta presaka samar izan bada ere, Marmari aldizkaria osatzen eta zuen eskuetara ekartzen saiatu gara.

Zenbaki honetan, beste hainbatetan egin genuen moduan, bi kontu nagusi lantzen saiatu gara: gure herria, Leitza, batetik; eta gure hizkuntza, euskara, bestetik.

Egia esan, biak ere banatu ezin-koak dira, edo guk behintzat oso lotuta ikusten ditugu. Hala izan dadin nahi dugu, eta horretarako egiten dugu aldizkaria, besteak beste.

Herria hobeki ezagutzen lagunduko diguten artikuluak eta lanak prestatu ditugu. Herria, esan bezala, baina baita herritarrak ere. Azken batean, hemen bizi garenek osatzen dugu herria, eta pertsona-

rik gabeko herriak ez du zentzu handirik.

Tira, sarrera honetan gehiegi aurreratu gabe, hobe duzue orrialdeotan barna ibiltzea, nahi duzuen tokian hasi eta bukatuta, eta ea zuen gustuko zerbait egitea lortu dugun. Horixe izan da, izan ere, gure asmoa. Neurri batean behintzat lortuko dugulakoan, orrialde hau pasatzera eta aldizkaria bisitatzerari animatzen zaituztegu denak.



abeslaria

Ainara Roda

Ainara Roda aski ezaguna da Leitzan. Ez da etxezuloan gordetzen den horietakoa. Gaur egun astez Iruñean bizi bada ere, ez du aitzakia handirik behar ahal duenean Leitzara etortzeko. Eta zerbait egotekotan Ainara bereizten duena, musika da. Biak lotzea, Ainara eta musika alegia, ia automatikoa da. Horretaz, musikarekin izan duen eta duen loturaz, hitz egin dugu berarekin. Honatz kontatu diguna.

Hasteko, ohi den bezala, zure ibilbideari errepasotxo bat egingen diogu. Noiz hasi zinen musikarekin lotzen...

Musikarekin 10 urte-edo nituela hasi nintzen, solfeoko klaseak hartzen, eta 11 urterekin pianoko klaseak. Iruñean, han bizi bainintzen orduan. Gero, 21 urterekin, kantu-ikasketekin hasi nintzen. Pianoa bukatzen ari nintzela hasi nintzen kantuarrekin, Iruñeko kontserbatorioan.

Intrumentu bat hartzeko garaian, "plan 66" izeneko ikasketa-plana izaten zen. Instrumentu bat hartzen zenuen eta hor hainbat ikasgai sartzen ziren: musikaren historia, artearen historia, musikaren estetika, harmonia, musika-formak...

Urte dezente egin dituzu ikasten, beraz.

Bai, 10 urtetik gora. Pianoarekin batera, lehen esandako ikasgai horietakoren bat egiten nuen, musikaren historia, edo harmonia...

«Musikarekin askotan asko disfrutatzen dut, baina sufritu ere bai»

Eta bestelako ikasketekin zer egin zenuen?

Nik BUP eta COU egin nituen. COU errepikatu nuen, selektibitatea irailean gainditu nuen, eta pentsatuta neukan magisteritza musikala egitea. Plazarik ez zegoen, ordea, eta erabaki nuen urte horretan kontserbatorioan ikasgai pila bat hartzea, lehen aipatu ditudan horietatik, eta hurrengo urtean joatea unibertsitatera. Baina gero ez nuen gogorik izan, eta musika-ikasketekin jarraitu nuen.

Eta lanean noiz hasi zinen?

Pianoko 8. maila egiten duzunean erdi mailako titulua lortzen duzu, titulu profesionala esaten zaiona, eta horrekin lanean hasi zaitezke. 8. maila bukatu nuenean, ekainean bukatu eta irailean lanean hasi nintzen Atarrabiako akademia batean, piano eta solfeoko klaseak ematen, orain dela 8 urte inguru. Lanean hasi nintzen, eta aldi berean pianoko 9. eta 10. urtea egiten eta kantua ikasten jarraitu nuen, Iruñeko kontserbatorioan.

Atarrabian urtebete aritu nintzen, eta hurrengoan Barañaingo musika eskolan hasi nintzen. Han bi urtez aritu nintzen, pianoko eskolak ematen. Eta handik Mutiloako musika-eskola joan nintzen, solfeo, koro eta pianoa erakusteko. Mutiloakoarekin batera Noaingo musika eskolan hasi nintzen, eta hor ematen ditut kantuko klaseak. Orain han nago, Noainen, eta Mutiloan eszedentzian nago.

Bestelako lanik egin duzu?

Pagozelain kamarero aritu nintzen uda batean, eta beste urtebetez baita Mugiroko Bentetan ere. Eta umeak zaintzen, etxea garbitzen... era aritua naiz. Eta horretaz aparte, aurtan Iturramako koro bat hartu dut, ordaintzen didatena. Asketa ere izan dut, baina ez nuen kobratzen eta ez nuen lana kontsideratzen. Eta Iruñeko San Jorgeko Civivoxen ere "aprende a cantar" izeneko kurtso bat ematen dut. Astean ordu eta erdi. Kantatzea gustuko duen jendea joaten da, 20-25 lagun; kantatzeko teknika pixka bat erakutsi eta kantak ikasten dituzte.

Lanaz aparte, zer korutan edo taldetan aritu zara?

Ez gehiegi. Tiki-tikitatik Leitzako Asketan, gero, kantu ikasketak egiten hasi nintzenean Iruñeko orfeoian 3 urtez aritu nintzen, nahiz eta laneko ordutegiagatik utzi behar izan nuen gero. Iruñean badago AGAO izeneko talde bat (Asociación Gayarre Amigos de la Opera). Urtean bi opera egiten ditu, koro bat dauka, eta koro horretan nago.

Nola definitzen duzu zeure burua, gaur egun: piano-jotzailea, abeslaria, musikaria...?

Gehiago abeslaria. Pianoa orain gutxiago jotzen dut: klaseak emateko...

Musika-munduan ari zara. Baina hala ariko ez bazina, non uste duzu mugituko zinatekeela?

Badakizu zer gertatu den? Bada, ia-ia nahi gabe sartu nintzela honetan. Ez nuen selektibitatea pasa, urte horretan sartu nintzen, sartu nintzen, sartu nintzen... lan bat, eta beste bat, eta beste bat atera zaizkit, eta orain arte. Oroitzen naiz unibertsitaterako bigarren aukera moduan erizaintza jarri nuela (*eta, hori esanda, barre egin du Ainarak*).

Eta zaletasuna nondik etorri ote zitzazun... Etxean ba al duzu musikaria den inor, edo musika-ikasketak egin dituen?

Ez, musika-ikasketarekin ez. Afizoa bai, ordea, kantatzekoa. Gure ama eta izebasabak ere Jeikikoak izan dira edo dira.

Beno, abeslaria zara. Ahotsa da zure tresna. Nola zaintzen duzu?

Badakizu... Ez da oso ongi gelditzen hala esatea, baina gezurrik ez dut esanen: ez dut gehiegi zaintzen. Egia da nik zortea dudala eta zintzur nahikoa sendoa dudala. Askotan parranda egin eta jendea segituan afoniko gelditzen da. Ni, normalean ez. Ez dut prestaketa berezirik egiten.

Eta nolabaiteko mugarik ekartzen al dizu abesteak? Gertatzen al

zaizu esatea "hara, hau gustura egingen nuke, baina ezin dut, kantatu behar dudalako".

Orain arte ez. Baina ni ez naiz profesionalki kantatzen aritzen. Abeslaria naiz, baina ez naiz soilik horretara dedikatzen. Nirea gehiago da klaseak ematea abestea baino. Nire lan bakarra kantatzea izanen balitz, ziur asko horrek ahotsa gehiago zaintzea ekarriko lidake.

Gaia pixka bat aldatuko dugu. Musika estiloak bateragarriak al dira? Alegia, izan al zaitezke operako abeslaria eta rock-talde batekoa aldi berean?

Ezin dizut erantzun, neronek ere ez dakidalako. Teknika ezberdinak dira. Opera kantatzeko teknika horretarako da. Abesteko garaian, lortu behar dena da zintzurak minik ez hartzea, edozein gauza abesten ari zarela. Estilo batean edo beste batean ari zaren, min handiagoa hartuko duzu. Eta errazagoa izan liteke operako abeslari bat beste estilo batean ongi aritzea, alderantziz baino. Opera abesteko, teknika bat landu behar da urte askoz, eta alderantziz ez dut uste hala denik. Errazagoa da opera-abeslari batek Amaralen abesti bat kantatzea, Amaralek aria bat kantatzea baino. Ezinen luke.

Azaldu kantatzeko teknika horietako bat zein izan daitekeen. Jen-deak, normalean, kantatzeko garaian, ez du teknikan asko pentsatuko. Kantatu egiten dugu eta kitto.

Beno, teknika basea, adibidez, arnaske-tan hasten da. Nola arnastu behar den ikasten da. Diafragma erabili behar da. Arnasa nola hartzen den ikasten da, eta gero arnas hori nola soinu bihurtu, "resonadorerak" erabiliz. Bat baino gehiago daude. Horietako bat, "resonador nasal" delakoa da, eta horretara bideratzen da arnasa, esaterako.

Horiek erabiltzeko ere denbora pixka bat beharko da, ezta?

Bai, pixka bat bai, beste hamar urte-edo

(barre egiten du, berriz; broma delako akaso?)

Eta opera bat prestatzeko garaian, esaterako, nola izaten dira entsaioak eta?

Iruñeko gure taldean, adibidez, emanaldiaren aurreko hiru hilabeteetan elkartzen gara, astean behin entsaiatzen dugu, gero astean bitan... eta azkeneko bi asteetan

egunero. Hala ere, talde bakoitzak bere ohiturak dauzka. Orfeoian aritzen nintzeanean, astean 3 egunetan izaten ziren entsaioak, 8etatik 10etara. Entsaioetan beroketa ariketak egiten genituen, "bokalizazioa" esaten zaiona. Gero taldeka, edo batzuetan denak elkartuta... zuzendariaren arabera.

Eta prestakuntzari edo hobetzeari begira, oraindik jarraitzen duzu ikasten, "entrenatzen" zara?

Bai, noski. Beno, kantuarekin oraindik ez dut karrera bukatu, eta jarraitzen dut irakasle batengana joaten. Ekainean daukat karrera-bukaerako azterketa. Astean behin edo bitan irakasle batengana joaten naiz, eta gero kantak zure etxan prestatu behar dituzu, bai pianoarekin bai kantatzen.

Eta karrera bukatuta, jarraitu beharko duzu prestatzen eta entrenatzen?

Bada jende asko kanpora joaten dena. Ni aurtan Donostiako irakasle batekin hasi naiz klase partikularrak hartzen, kantukoak. Horretaz gain nik badaukat Iruñeko kontserbatorioko nire betiko irakaslea. Eta Donostiara astean behin joaten naiz, irakasle batengana, 3 ordu laurdeneko klasea hartzera.

"Adarrak jarri" dizkiozula eta, Iruñekoa ez al da jeloskor sentitzen?

Dena hitz egina dago, eta haren onespenarekin joaten naiz. Alde daukat, nahiz eta batzuetan komentarioren bat edo atera litekeen, "ez dakit ba, honek esan dizun hori..." eta horrelakoak. Baina ez dago arazorik. Arazoa nik daukat haundiagoa, teknika ezberdinak erabiltzen baitituzte biek eta momentu honetan burua nahasi xamarra daukat hori dela eta...

Eta mundu horretan, ikusten al da jeloskortasunik edo inbidiarik, "nik solista izan nahi dut, baina beste hura jarri dute..." eta gisa-koak?

Bai, izaten dira, eta hori da niri gutxien gustatzen zaidana.

Musika-irakaslea ere bazara. Gauza gehienek bezala, alde onak eta txarrak izanen ditu horrek. Zein dira horiek?

Alde ona, oporrak (barre egiten du, berriz. Seguru egia dela). Nik orain kantuklase gehienak helduei ematen dizkiet. Pianokoak, berriz, gehienbat umeei ematen nizkien. Eta deskubritzen ari naiz gehiago gustatzen zaidala helduekin lan egitea umeekin baino. Gehian kostatzen zaidana, adibidez, Mutiloako musika-eskolakoa da. Astean bi orduz joaten naiz, eta 51 ume dauzkat, elkarrekin, koruko ikasgaietan. Haien zatiderrigorrezko ikasgaia da, eta, jakina, batzuek ez dute joan nahi. Hainbeste ume, hain mugituak... Askok



tan ateratzen zara pentsatuz “ni zer ari naiz hemen”.

Baina, beste aldetik, atsegina izan behar du zure eskutatik pasatzen ari direnak ikasten eta aurreratzeko ari direla ikusteak, ezta?

Bai, hala da. Hala ere, azken urteotan helduekin lan asko egiten ari naiz, eta helduen kasuan askotan gertatzen da hasi egiten direla, hurrengo urtean utzi, ezin dutelako, eta hor agian ez da ikusten prozesu hori. Beraz, alderdi onak eta txarrak beti egonen dira, baina, orokorrean, niri oso jende jatorra suertatu zait beti, eta gustura aritzeko aukera izan dut.

OPERAZ

Musikak bereizten du Ainara, esan dugu hasieran. Musikari gehiago ere bada dira Leitzan, noski, baina operan aritzea ez da batere ohikoa. Gehienontzat nahikoa genero ezezaguna edo arrotza. Horregatik, horretaz zer edo zer galde-tu nahi izan diogu Ainarari.

Operan ere aritzen zara. Nahikoa genero urruna edo ezezaguna jende askorentzat. Zer da opera? Esprikatu liteke?

Esan liteke dela antzerki bat abestua, eta musika duena, orkestra bat duena. Historia bat da, pertsonaia batzuekin, eta pertsonaia horiek, hitz egin beharrean, abestu egiten dute.

Eta abesteko modua beti horrelakoa al da, guk daukagun irudi tipiko horretan ikusten dena?

Bai, hala da. Opera kantatzeko estiloa hori da. “Con la voz impostada” esaten zaio. Hori da opera abesteko teknika.

Eta zer da gehiago, abestea edo antzeztea?

Alde batetik, operarako erabiltzen den teknika, “kantu lirikoa” esaten zaiona, ez da opera bakarrik kantatzeko erabiltzen. Operan, Zarzuelan, Lied-en, “canción

francesan”, “Canción españolan”... ere erabiltzen da. Estilo dezente daude, eta Opera horietako bat da. Antzerki bat, antzoki batean egiten dena, orkestra batekin, eta hor antzeztu egin behar da; baina gainerakoetan ez, eta besteetan egin dezakezu emanaldi oso bat batere mugitu gabe.

Eta Operan parte hartzen dutenak abeslariak dira, edo antzezleak...?

Bai, abeslariak dira. Solistak, eta korua. Horietaz gain ere izaten dira figurinistak, abesten ez duten batzuk.

Eta Operan aritzen zareten abeslariak, denek musika-formazioa izanen duzue. Baina antzerkia egiteko batere prestakuntzarik edo formaziorik ba al duzue?

Bai. Kontserbatorioko ikasketak, kantu-ikasketak, erdi-mailakoak (6 urte) eta goi-mailakoak (4 urte) dira, hala banatzen dira. Goi-mailako 4 urte horietan, bi urtez “eskema” delakoa egiten da. Beste urte batez “gorputz-teknika”, eta beste batez “mugimendua”. Eta hor lantzen da gorputza eta antzeztea.

Eta zergatik lotzen dugu beti gorbata-dunekin eta “goi-mailako” jendearekin edo aberatsekin?

Hala delako. Eta lotzen da, baita ere, jende zahararekin, aitona-amonekin. Ez dakit zergatik ez dagoen sartua gazteen artean. Opera bat ikusteko, egia da sarrerak nahikoa garestiak izaten direla. Orain Iruñean egin behar dugun honetan uste dut sarre-rak 48 euro balio dituela. Urtean behin joateko ez da hainbeste akaso, baina asko gustatzen ez bazaizu edo asko ezagutzen ez baduzu...

Eta deus egiten al da jendeak Opera ezagutzeko eta zabaltzeko?

Beno, azken aldi honetan Nafarroan, ttikititikatik bultzatzeko, eskola eta familia giroko kontzertu batzuk antolatzen hasi dira, Nafarroako Gobernuak antolatuta, eta batzuetan Operari begira antolatu dira. Eta umeentzako opera berezi batzuk ere

MOTZEAN

Musika mota bat, abesteko: opera

Musika mota bat, entzuteko: musika alaia

Musika talde bat: THP

Bakarlari bat: ez dakit...

Abesteko toki bat:

akustika oneko elizaren bat

Musika entzuteko toki bat: kotxea

Animatzeko musika: latindarra

Lasaitzeko musika: musika klasikoa, Mozarten requiem-a

egin dira, haientzat egokituta (*Ali Babá, El flautista de Hamelin...*). Kolore askorekin, umeentzako ipuin moduko bat.

Eta Nafarroan, esaterako, Opera ikusi nahi duenak, zer aukera dauka?

Nafarroan badituzu AGAOk urtean egiten dituen bi funtzio horiek, eta gero Ba-luartearen ere pare bat funtzio edo izaten dira.

Jendaurrean abestea askotan egokitzen zaizu, Ainara. Zer da, motibagarria, beldurgarria, pozgarria...?

Niri gehienetan gertatu izan zait eskema-tokira igotzea eta bertan ongi, indartuta sentitzea. Beste gauza bat da ongi prestatuta ez egotea, eta orduan ateratzeko ikararata egoten zara. Gero, niri gertatzen zaidana da, Leitzan abestean —ez dut askotan abestu hemen—, ezkontza batean esaterako, bertan urduriago jartzen naizela.

Ezkontzena aipatu dudanez, hori da beste alderdi bat. Ezkontza askotan eta askotan aritu naiz abesten. Askotan deitzen dute. Udaberrian hasi eta udan zehar, ia larunbatero aritzen naiz. Baina kanpoan egokitzen zaidanean, lasai asko abesten dut. Leitzan abestu behar dudanean, berri-urdu jartzen naiz, ez dakit zergatik.



Beno, orain galdera mistiko samarra da. Zer da zuretzat musika?

Begira, musika niri gustatzen zait. Eta musikarekin askotan asko disfrutatzen dut, baina sufritu ere bai. Eta askotan pentsatu dut nire bizitzak musikarekin lotuta jarraitu behar duen edo ez. Askotan pentsatu dut, ez delako erreza. Musika arte bat da, nahikoa arte arraroa, eta askotan esaten da musikariak ere arraroak direla.

Eta hala dira? Anestesistak baino arraroagoak, adibidez? Edo igeltseroak, edo arkitektoak baino arraroagoak? (adibide hutsak dira, ez dezala inork gaizki ulertu).

Badago jende oso normala, eta baita xele-break ere. Denetik dago. Eta musika bizitzeko era ezberdinak daude. Lehen esan dizut, ni ia-ia nahi gabe sartuz joan naiz mundu horretan. Baina ez dut sentitzen musikari askok sentitzen edo adierazten duten pasio hori. Igual etxean nago eta pianoa jotzen hasi beharrean nahiago dut kalera atera.

Abesten ari zarenean, noraino hartzen duzu kontuan letra, esaten ari zarena? Letra ulertzeak, edo letra ona izateak laguntzen du? Motibatzen du? Inporta du?

Kantuak, beste instrumentuen aldean, hori dauka: testua. Kantuan beti zerbait esaten ari zara. Jakin behar duzu zer esaten duzun, baina askotan beste hizkuntzak batean dago testua. Niri, adibidez, alemanierazko testu bat jartzen badidazu badakit goitik-behera kantatzen, fonetikoki perfektu, baina ez dakit zer estaen ari naizen.

Kantu-ikasketetan, bi urtez ikasten da italiara, alemaniera, frantsesa eta ingele-

sa. Ikasgaiak “fonetika eta hizkuntzak” du izena. Gehienbat ahoskatzea ikasten da, hiztegia, gramatika pixka bat. Hiztegian, adibidez, kantetan erabiltzen ohi diren gaiak lantzen dira: natura, maitasuna...

Eta kantatzen ari zarenean kontzientea zara esaten ari zarenez: “hau esaten ari naiz”?

Hori da zure etxean egiten duzu lana. Itzulpena bilatu, edo zuk egin, edo testua norbaitekin batera itzuli... Beti saiatu beharko genuke abeslariok zer esatena ari garen ulertzen. Onena da jakitea zer esaten duzun; kantatzen ari zaren sentimendua bata edo bestea den jakiteak, kantatzen lagunduko dizu.

Eta doinu alai bat edo triste bat erabili beharrak, prestakuntza aldatzen al du? Triste zaudenean kantatu al dezakezu behar bezala doinu alai bat? Eta alderantziz?

Opera bat kantatu behar baduzu, adibidez, opera noiz idatzi zen, autorearen biografia, antzerkia nork idatzi zuen... Rol asko daude, protagonista izan daiteke pertsona gazte eta alaia, edo beste era batekoa, eta horren arabera bai, aldatu behar duzu pixka bat.

Eta, berriz ere Leitzari lotuz. Aurten Asketa abesbatza desegin omen da. Zer pentsatua eman al dizu horrek?

Azaroaren 29an desagertu zen. Urtean behin abesbatzen topaketa bat egiten da, eta aurten Asketari egokitu zaio antolatzea, Leitzan. Zenbait herritako abesbatzak etorri ziren. Eta hori egin arte irautea erabaki zen.

Pena handia izan da, baina ezinezkoa zen. 18 ginen abesbatzan, 5 mutil eta 13 neska. Arazo oso handiak izaten genituen elkartzeko eta entsaioak egin ahal izateko. Lana dela eta beste hainbat gauza direla, ez ginen elkartzen. Lehen Juan Bautistak zuzentzen zuen, eta Betelura eraman zutenean nik hartu nuen, bi baldintzekin: alde batetik, lanen bat-edo ateraz gero, utzi beharko nuela. Bestea zen denok konpromisoa hartzea. Baina gero errealtateak agindu du, eta ostirala iritsita 6 edo 7 besterik ez ginen elkartzen, eta aste bat, eta beste bat, eta berdintsu. Bilerak asko egin ziren, eta horietako batean erabaki zen horrela ezin zela. Ahalegina ere egin zen, mutilak bilatzen aritu ginen esaterako, HITZAn elkarrizketa egin genuen... Azkenean, ordea, desagertu egin da, eta pena handia da.

Eta, bukatzeko, inoiz gertatutako bitxikeriaren bat.

Behin ezkontza batean abestu behar nuen beste 6 edo 7 lagunekin. Bi kotxetan joan behar genuen Zizurrera... Gauza da ni ikastaro batetik atera nintzela juxtu samar, eta Gaztelu Plazan norbaitek jaso behar ninduela. Baina...denbora pasa ta ez zen inor azaltzen... Orduan ia inork ez genuen izaten mugikorrik. Beraz, taxi bat hartu nere etxeraino, han kotxea hartu ta Zizur Txikira joan nintzen. Han ez zeuden... Berriz kotxea hartu eta Zizurreko urbanizazio berrira joan nintzen: Han ezta ere... Kotxea berriz hartu eta Zizur Nagusira allegatu nintzen azkenik... Meza ederki hasia zegoen eta justo “Ave María” abes-teko momentuan allegatu nintzen. A ze nerbioak pasatu nituen egun hartan!! Kotxe batekoak besteak jasoko nindutela pentsatu zuen eta alderantziz... En fin...

Testa

Ariketa erraz bat egingen dugu oraingoan. Test bat osatu dugu, Leitzari buruzko zenbait galderekin. Ez dugu zure autoestimua mindu nahi, eta, beraz, espero dugu aisa eta ongi asmatzea. Hala ez baldin bada, akats asko egiten badituzu, zure herria hobekixeago ezagutu behar duzula pentsatzen hasi zaitez. Ea ba.



1.- Zenbat biztanle zeuzkan Leitzak 2008. urtearen hasieran?

- a. 3.011
- b. 3.101
- c. 2.989
- d. 2.901

2.- Zein da Leitzako posta-kodea?

- a. 31880
- b. 31881
- c. 31882
- d. 31883

3.- Zenbat kilometro daude Leitzatik Iruñera, errepidez?

- a. 45,8
- b. 50,8
- c. 55,9
- d. 60,8

4.- Zenbat haur jaio ziren Leitzan 2007. urtean?

- a. 17
- b. 32
- c. 42
- d. 65

5.- Zenbat haur jaio ziren Leitzan 1975. urtean?

- a. 17
- b. 32
- c. 42
- d. 65

6.- Zenbat haur jaio ziren Leitzan 1995. urtean?

- a. 17
- b. 32
- c. 42
- d. 65

7.- Zenbat ikasle ari dira Leitzako eskolan ikasten 2008-2009 ikasturtean?

- a. 153
- b. 188
- c. 222
- d. 287

8.- Zenbat ikasle ari dira Leitzako institutuan ikasten 2008-2009 ikasturtean?

- a. 186
- b. 209
- c. 242
- d. 301

9.- Zenbat kilometro karratu dauzka Leitzak?

- a. 48,2
- b. 58,2
- c. 68,2
- d. 78,2

10.- Zer udalerrirekin egiten du muga Leitzak?

- a. Goizueta, Ezkurra, Basaburua, Larraun, Areso eta Berastegi
- b. Goizueta, Ezkurra, Basaburua, Larraun eta Areso
- c. Goizueta, Ezkurra, Larraun eta Areso
- d. Goizueta eta Areso

11.- Zenbat auto daude matrikulatuta Leitzan 2008. urtean?

- a. 545
- b. 867
- c. 1.323
- d. 1.931

12.- Zenbat ziklomotores edo motozikleta daude matrikulatuta Leitzan 2008. urtean?

- a. 37
- b. 98
- c. 174
- d. 302

13.- Zenbat kamioi daude matrikulatuta Leitzan 2008. urtean?

- a. 244
- b. 199
- c. 121
- d. 66

14.- Zein da Leitzako mendirik altuena?

- a. Guratz
- b. Aritz
- c. Urepel
- d. Eguzkizko Muñoa



Zertan da Leitza?

Guk puntua jarri, zuk bertsoa osatu

Gutxi asko, denoi inporta zaigu gure herria zertan den, ezta? Batzuei batez ere ingurumena interesatuko zaie; beste batzuei kirola; beste batzuei auzoen eta herritarren arteko harremanak...

Hemen bizi gara, nolanahi ere, eta norberak kontu, auzi edo gai batzuek hurbilagotik eta zuzenago bizi baditu ere, era batean edo bestean herriko errealitate eta egoera guztiek eragiten digutela uste dugu guk. Horregatik uste dugu denok egin beharko genukeela ahalegina gai horien guztien gainean pentsatzeko eta ondorioak ateratzeko. Eta areago, eta eskatzea libre denez, atera ditugun ondorioen arabera denok zer edo zer egiteko.

Ba al dakigu nolako Leitza daukagun? Eta nolakoa nahiko genukeen? Daukagunetik izan nahiko genukeenara, ziur asko, tartetxo bat izanen da. Bide hori, nolanahi

ere, ez da egingen ahaleginik gabe. Pentsatzea da lehendabiziko urratsa, eta egitea bigarrena. Guk, artikulu honen bitartez, pentsatzen jarri nahi zaituztegu, lehendabiziko urrats horretan bederen pixka bat laguntzeko.

Ikusiko duzuen moduan, zenbait gai aukeratu ditugu, denak ere Leitzako eguneroko bizitzarekin zerikusia dutenak, eta horien inguruko ideia eta galdera batzuk bildu ditugu. Galderak eta ideiak, herriaz dugun ezagutza xumetik atera ditugu alde batetik, eta batzuei eta besteei edo han eta hemen entzundako aipamenetatik bestetik. Horiek baliatuz, beraz, planteatu ditugu hemen gaiak, nahiz eta badakigun hurbilpen bat besterik ez dela, oso azalekoa, eta informazio eta galdera garrantzitsu askoz gehiago izanen dela gai bakoitzaren inguruan.

Dena den, lehen esan dugun moduan,

guk puntua jarriko dugu, eta, nahi izanez gero, zuek osatu bertsoa. Gaia emanen dizuegu, baina zenbait galdera planteatu ere, zuek neuronak lanean jar ditzazuen. Ez dugu herriaren azterketa sakonik egin, eta are gutxiago galderei erantzuna eman; baina saiatu gara zuek azterketa hori egin dezazuen aitzakia ematen behintzat. Honatx, horrenbestez, puntuak eta galderak:

INGURUMENA

Moda-modako gaia dugu ingurumena eta ekologia. Denok nahiko dugu, segur aski, herri garbia, ederra, natura-ondasuna ongi kontserbatuko duena... Horrek, nolanahi ere, kostu bat ere izanen luke. Alde batetik, ekonomikoa, garbitzeak ere kostu ekonomikoa bai baitu. Baina bestelako kostua ere izanen luke, ingurumena zaintzeak hainbat muga jartzea ere ekarriko bailuke: jarduera batzuk mugatu, eraiki-



tzeko mugak, zikintzeagatiko zigorrak edo isunak...

Galderak

- Batzuetan, gertatzen da herri baten garapen ekonomikoa eta diru-iturriak lortzea ingurumena zorrotz zaintzearekin ezkontzea zaila dela. Zeri eman behar zaio lehentasuna?

ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA

Gai garrantzitsua, inondik ere, izan ere herritar guztioi eragiten digu zuzen-zuzenean, eta herriari bete-betean. Etxebizitzaren eta hirigintzaren gaia kudeatzeko edo bideratzeko moduak, bestalde, herriaren etorkizuna bera ere baldintza dezake. Etxebizitzak egiteko eta eraikitzeke neurriak eta erak herrien itxura eta baita izaitea bera ere aldatu dezake eta hala gertatu da askotan. Aldaketa horiek alderdi onak zein txarrak izan ditzakete zenbait arlotan: herriaren bizitasuna, ingurumena, hizkuntza, zerbitzuak, nortasuna...

Eraikitzen dugunean eta obrak egiten ditugunean, etorkizuneko Leitza ere marrazten ari gara, neurri batean behintzat.

Galderak

- Non eraiki behar da?
- Zenbat eraiki behar da?
- Herria zenbat haztea nahi dugu? Eta nola?
- Herriko bizitza soziala plazaren inguruan nahi dugu, edo leitzarrek auzoetan ere bizitza egitea nahi al dugu?

TRAFIKOA

Aldizkari honetan bertan agertzen denez (Test-ariketan, hain zuen ere), Leitza auto ugari dago, asko. Kale nagusira ateratzea besterik ez dago horretaz ohartzeko. Autoak ezker-eskuin, gaizki aparkatuta, trafikoa oztopatuz, bi metro ez ibiltzeagatik edo maniobra pare bat ez egiteagatik. Edo plaza bera, beti autoz josia. Horrelakoxeak gara: gure autoarekin joaten gara toki guztietara, eta nolanahi

aparkatuta uzten dugu. Hor konpon bestek.

Galderak

- Leitzako kaleak norentzat dira, ibilgailuentzat edo oinezkoentzat? Eta norentzat izan beharko lukete? Normala al da egunero-egunero herriko kale nagusian ikusten duguna?
- Autoen abiadura kontrolatzeko zer egin behar da?
- Plaza itxi behar al da eta ibilgailuei sartzen ez utzi?

EUSKARA

Leitza euskara bertako hizkuntza da, eta, bistan denez, hizkuntza estimatua eta baloratua da. Gehien-gehienak euskaldunak gara, eta neurri handi batean euskaraz bizi gara. Ez % 100ean, ordea. Erdara ere erabiltzen dugu, eta euskaraz normal-normal bizi ahal izateko oraindik puska bat falta zaigu. Erdara, nolanahi ere, ez dugu soilik erdaldunak tartean daudene-



an erabiltzen. Euskaldunon artean ere erdaraz egiten dugu, sarritan.

Galderak

- Nolako Leitza nahi dugu etorkizunean? Euskaraz normaltasun osoz biziko dena? Gaur egun hizkuntzarekiko dugun jarrera, kontzientzia, eta, batez ere, praktika, nahikoak al dira Leitza etorkizunean euskalduna izanen dela ziurtatzeko? Gure esku al dago, edo kanpoko indarrek mugatuko gaituzte?
- Leitza eredu gisa agertu da askotan euskarari dagozkion gaitetan. Benetan eredugarri dela iruditzen zaigu? Zer dela eta?
- Zer egin dezakegu gaur egun erdaldun direnak euskarara etor daitezen? Eta etorriko diren erdaldunek ere euskalduntzeko gogoia eta motibazioa izan dezaten?

HEZKUNTZA

Herriaren etorkizuna, normala den moduan, belaunaldi gazteen eskuetan izanen da. Gaurko haurrak eta gazteak izanen dira biharko Leitza gidatuko dutenak. Eta gaur egun, haur eta gazte horiek herrian

bertan ikasten dute, haur-eskolan, eskolan eta institutuan. Gehienek hor osatzen dute haien ibilbide akademikoa, 18 urte izan arte.

Galderak

- Haur eta gazteen heziketa erabat profesionalen esku utzi behar al da? Edo ginerakook parte hartu behar dugu, era batean edo bestean (eta ez soilik kritikatzeke, jakina)?
- Zein da eskola edo institutuko irakasle edo langile ez garenok ikastetxean edo hezkuntza-komunitatean egin dezakegun ekarpena?

KIROLA

Bistan da Leitza kirolarekin lotutako herria dela. Herri-kirolarekin oso lotua, eta bereziki pilotarekin. Kirola ohiko eztabaidagaia edo mintzagaia da gure herrian, eta herritar askoren eguneroko bizitzan alderdi garrantzitsua. Asko dira kirol bat edo beste egiten, ikusten edo jarraitzen dutenak, eta azken urteotan kirolaren inguruko mobilizazio handi samarra ikusi dugu. Herrian giro berezia sortu duten kirol-gertakariak izan di-

tugu, aurtengo eskuz banakako finala esaterako.

Galderak

- Leitza kirol-mota ezberdinei ematen zaaien tratamendua orekatua al da?
- Zein da Leitza kirol nagusia? Futbola? Pilota? Bestelakoren bat? Ez dago kirol nagusirik?
- Haurrei eta gazteei ematen al zaie behar den neurrian kirol ezberdinak probatzeko eta ezagutzeko aukera?
- Gehiegizko garrantzia hartu al du kirolak gure herriko bizitzan? Edo pisu eta leku gehiago eman beharko litzaioke?
- Ba al dauzkagu kirolerako behar ditugun instalazioak?

UDALA

Udala da herritarrek hurbilen duen administrazioa. Herrian bertan dago, eta bertako herritarrek osatu ohi dute. Zenbat eta txikiagoa izan herria, gainera, orduan eta errazagoa izan ohi da udal-ordezkariegana iristea.

Udala da, bestalde, gure eguneroko bizitzarekin zerikusi handia duten hainbat gauza kudeatzen eta bideratzen dituen:



zerbitzuak (gizarte-zerbitzua, euskara, kirola, hezkuntza), hirigintza-lanak, zer-gak, pestak, diru-laguntzak, mendia... eta beste hainbat.

Galderak

- Zein da herritarrek udaleko bizitzan parte hartzeko bidea? Nola antolatu beharko litzateke herritarren parte-hartzea?
- Zer eskatu behar diogu udalari, eta zer eskaini?
- Udalak egindako gauza bat edo beste aipatu, kritikatu, salatu, edo zoriontzen dugunean, kalean entzundakoan oinarritzen gara edo bertan galdetzen dugu?

HARREMANAK

Askotan entzuten dugu herriko bizitza aldatzen ari dela. Kaleko bizitza, esate baterako. Garai batean jendeak denbora gehiago ematen zuen kalean, eta orain, ordea, etxezuloagoak omen gara. Gure denbora libreko ordu gehiago pasatzen omen ditugu orain etxean, telebistaren edo ordenagailuaren aurrean.

Tabernaz taberna ibiltzeko ohitura, esate baterako, txikiteoa eta antzeko ohi-

turak, aldatu dira, eta murriztu dira. Tabernaz taberna tragoa hartzen ibiltzea ona edo txarra den epaitzen hasi gabe, bista-koa da pertsonen arteko harremanetan aldaketak gertatzen ari direla, eta kaleko giroan ere aldaketak egon direla. Zenbaitetan, astez eta negu aldean batez ere, herria abandonatuta dagoelako sentsazioa izan dezakegu. Ez dago inor kalean.

Bestalde, elkarteak edo bestelako egoitzak ere ugaltu egin dira azkeneko urteotan. Jendea elkartzeko eta harremanetarako gune gisa ulertu eta ikus daiteke, baina baita koadrillak edo lagun taldeak elkarren artean isolatzeko modu gisa ere. Gauza guztiek, segur asko, beren alde ona eta txarra izanzen dute.

Galderak

- Bizitasuna galdu al du Leitzak?
- Aldatu al dira ohitura sozialak?
- Herritarren arteko harremanetan gertatu al da aldaketarik? Lehen baino harreman gutxiago al dugu gure artean? Eta kanpoko jendearekin? Eta txarra al da hori? Edo ona? Edo ez bat eta ez beste?
- Zein dira gaur egun herritarren (haur, gazte, heldu, adinekoen) harremaneta-

rako gune nagusiak? Taberna? Denda? Elkartea? Etxea?...

ZEIN DIRA ZURE LEHENTASUNAK ETA ZURE GALDERAK?

Horaino guk proposatu eta planteatu dizkizuegun hausnargaiak eta galderak. Esan bezala, erantzunik proposatu gabeko galderak dira, zuen guztion erantzun partikularrak eta askotarikoak bilatzen dituztenak. Nork bere erantzuna izanenu du, eta, jakina, nork bere galdera-sorta.

Eta horixe duzue gure proposamena. Saiatu galdera hauen inguruko erantzunen gainean hausnartzen, saiatu bestelako gai eta lehentasun batzuk formulatzen, eta saiatu horien guztien inguruan galdera berriak sortzen, zuen ezagutzatik, bizi-penetatik edo interesetik abiatuta. Eta gai nahiz galdera horiek, lagunari, senideari edo auzoari komentatu, eztabaidatu, eta erantzun berriak bilatu.

Hori guztia eztabaida soziala da, gure ustez herri baten garapenerako ezinbesteko tresna. Zenbat eta galdera eta azterketa zorrotzagoak egin, orduan eta egokiagoak eta finagoak izanenu dira herri honen arazo-ei eta beharrei emanen diegun erantzuna.

Leitza, Luzeren begietan

marmari aldizkariko atal berri honetan, Leitzari begiratzeko eta Leitza ikusteko modu ezberdinak erakusten saiatuko gara. Ez baita berdina denok ikusten eta bizi dugun Leitza. Herriak mila aurpegi eta alde dauzka, eta gure arreta han edo hemen jartzen den arren, gure ondokoak beste nonbait jarriko du akaso.

Leitza nola ikusten dugun erakusteko argazkiak erabiliko ditugu. Zenbaki bakoitzean pertsona bati eskatuko diogu, bere zenbait argazkiren bitartez, berak ikusten duen Leitza zein den erakutsi dezan. Gu guztion begiraden batuketa izanen litzateke, ziur asko, benetako Leitza. Gaurkoan, hasteko, Miel Mari Eloseggi "Luze"ri eskatu dizkiogu galeria osatzen duten argazkiak. Hauexek dira berak utzitakoak:

Ezpatadantzarien arintasun ikusgarria.




Leitzelarrean zuhaitz baikainak daude. Argazkikoa Aitzmurdin dago.



Jon Mikone Euskal Herriko sega txapelketan, 2008ko abuztuan.





Josetxo Urrutia, Leitzako plazan harria jasotzen.



Santa Barbarako ermita Gorritin, Leitzaldetik aterata.



Manuel lasartek Leitzara egindako azkeneko bisita.



Pestetako ingurutxoa, 2008.



Pago xelebrea Sarasaingo errekan.

**¡Hablame en
cristiano!**



- ¡*Hablame en cristiano!*
- *¿Pero qué quiere decir exactamente en cristiano?*
- *¡Que aquí hablamos en español, joder!*
- *¿Aquí, exactamente, donde? ¿En esta ventanilla, esta sala, este edificio, este país...? ¿Me podrías concretar un poco?*
- *Vosotros siempre estáis con la misma matraca. Sois unos radicales.*
- *Pero, ¿siempre, siempre? O casi siempre...*
- *¡No sé, joder!*
- ...

“**H**ablame en cristiano” esaldia nahikoa ezaguna da, ezta? Inoiz esan al dizute horrelakorik? Eta antzekorik? Gertatu al zaizu inoiz euskaraz hasi eta solaskideak horrelako zerbait esatea, edo oihuka hastea? Zenbaitetan, zalapartat handirik gabe ere, begirada okerrak ere nahikoa adierazgarriak eta desatseginak izaten dira.

Tira, ez gara oso gauza arraroa esaten ari, ezta? Ziur asko gehienoi gertatu zaigu egoera deserosoren bat. Baina denok ez gara berdinak izaten, eta denok ez dugu berdin jokatzeko horrelako egoeretan. Modu askotan erantzun dezakegu. Honatx horietako batzuk:

- a. Barkamena eskatu eta erdaraz egin.
- b. Kasurik egin gabe, euskaraz jarraitu.
- c. Gure jarrera zuritu edo justifikatu.
- d. Gaizki erantzun digunari guk ere gaizki erantzun eta zalapartan hasi.
- e. Gu deseroso sentitu gabe, gaizki erantzun digunari sentiarazi deserosotasun hori.
- f. ...

Zer egingen zenuke zuk?

Aukera gehiago izanen dira, baina guk horietako batzuk jaso ditugu. Eta horien artean, azkeneko horretan erreparatu nahi dugu oraingoan. Hausnarketatxo hau egiteko arrazoia zein den? Bada, Valentziatik etorri den ideia edo proposamen batek eman digu aitzakia. Ferran Suay eta Gemma Langines psikologia irakasleek sortu duten TELP tailerrak, hain zuzen ere: *Taller d'Espai Lingüístic Personal*

esan nahi du, eta jarraian azalduko dugu. Has gaitezen, beraz, gaurko gai honetaz hitz egiten.

Hizkuntzarekin bizi gara. Erabat. Egutero, uneoro. Ezin dugu hizkuntzarik gabeko urratsik egin. Pentsatzeko, hitz egiteko, lan egiteko, zerbait eskatzeko, zerbait eskaintzeko, besteengana joateko, informazioa jasotzeko, ikasteko... Ez dago hizkuntzarik gabe egin dezakegunik.

Eta hizkuntzarekin edo hizkuntzekin dugun tratua edo harremana askotan plazerzkoa eta atsegina izaten den arren, ez da beti horrela gertatzen. Batzuetan, gatazka txikiak edo handiak ere sortzen zaizkigu. Hizkuntzekin baino gehiago, egia esateko, hitzuneekin. Edo ez zaizu inoiz gertatu gauza bat euskaraz esaten hasi eta erantzun txar bat jasotzea? Edo erantzun txarra ez bada, begirada edo keinu txar bat? Edo, zure hizkuntzan ari zarela, arrotasun sentsazioa izatea? Edo...

Bai, euskaraz aritzeak, gezurra badi-rudi ere, oraindik ere arazotxoak eta gatazkatxoak sortzen dizkigu eguneroko bizitzan. Leitzan, zalantzarik gabe, Iruñean edo Donostian baino gutxiago, hizkuntza hemen sustraituagoa eta normalizatuagoa dagoelako. Baina hemen ere gerta liteke.

Tira, gatazka linguistiko horien aurrean hartu ohi dugun jarrera ez da denon kasuan berdina izaten, eta norberak ere une batean edo bestean desberdin joka dezake. Argi dagoena da gatazka edo istilu linguistiko txiki horiek sortzen duten egoera deserosoa izaten dela, eta askotan urduritasuna, haserre edo ezinegona sortzen dutela, baita nekea ere.

Zehaztu dezagun, badaezpada, adibide batekin argiago ulertuko baita. Imajina dezagun Iruñeko erregistrora, edo kafetegi batera, berdin dio, joan garela eskabide bat sartzera edo kafe bat eskatzera. Leihatilán edo barraren atzealdean dagoenari euskaraz eskatu diogu, normal-normal. Iruñean gaude, eta gure hizkuntzan ari gara. Aurrekoak, berriz, “oye, hablame en cristiano” esan digu. Oraindik ere entzuten den esaldi oker eta desatsegina. Bada, horren aurrean, nola erantzun?

Erreakzio ugari izan genitzake, eta zenbait faktoreren mende egonen da hori: euskararen inguruan dugun jarrera, une horretan inguruan dagoen jendea, ordua, egun horretan dugun umorea, gure pazientzia, argudioa edo arrazoibidea pres-tatua izatea edo ez izatea...

Bada, azken aldian Euskal Herrira TELP izeneko tailer batzuen berri iritsi da. Valentziatik etorri da ideia, Ferran Suay eta Gemma Langines psikologia irakasleek sortua, eta jarrera asertiboan oinarritutako proposamen bat da, azken batean. Zer proposatzen den? Bada, besteak beste, “erasotzat” har ditzakegun zenbait jarreraren eta jokabideren aurrean, guk jokabide asertiboa eta burutsua izatea, eta, baita ere, gehiegizko energia ez gastatzea, gehiegi ez nekatzea, eta, azken batean, gehiegi ez sufritzea. Esate baterako, eztabaida sutuak eta antzuak saihestuz. Izan ere, egoera horiek modu egokian kudeatzen ikasiz gero —betiere isilik gelditu gabe eta geureari konfiantzaz eutsiz—, gusturago gelditzea lor dezakegu, eta, gainera, gatazkatxoan “garaile” izatea.

Eta horretarako, valentziar hauek zenbait teknika landu dituzte, eta haiek erabiltzea gomendatzen dute gainera. Valentziako egoerarako pentsatutakoak dira, eta hura hemengoarekin alderatuta ezberdina da. Hala ere, ideia orokorra, eta baita hainbat teknika edo baliabide ere, erabilgarriak dira hemen ere.

Tailer horren eta teknika horien helburuak nahikoa sinpleak dira: euskaraz egi-teagatik deseroso ez sentitzea; hizkuntza jokabide asertiboari esker gusturago sentitzea; eta aipatu ditugun egoeretarako baliabideak izatea. Hizkuntza jokabideko eredu berriak sortu nahi dira, bide batez, horrek ere eragin espantsiboa izanen duelakoan. Valentziar horiek sortu dute tailerra, beraz, eta Euskal Herrian izan dira horren berri ematen, eta hemen bertan EMUN taldeak proposamena landu eta egokitu du. Valentziarrekin izandako harremanarekin eta EMUNek berak eman-dako tailerrekin eta sortutako materialarekin osatu dugu irakurtzen ari zaren lan-txo hau.

TELP

Izen bitxi horren esanahia hau da: Taller d’Espai Lingüístic Personal. Eta zer lortu nahi da tailerrarekin?

- Alde batetik, euskaraz aritzeak zenbait egoeretan sortzen digun deserosotasuna murriztea.
- Eta bestetik, jokabide asertibo bati esker gu gusturago egotea eta sentitzea, eta horretarako baliabideak izatea.

Hizkuntzarekin eta gure jarrerarekin eroso egotea da helburua, beraz, baina gure hizkuntza erabiltzeari uko egin gabe. Erosotasuna bilatzen da, beraz, baina beste alde batetik hizkuntzaren inguruan ahalegin bat egin behar dela ere planteatzen da. Alegia, abiapuntua da euskaraz egiteko borondatea eta nahia dugula, eta gogo horri eutsiko diogula. Eta gogo horri eusteko, egoera zail eta deserosoetan (erdaraz hitz egiteko eskatzen digutela, esaterako), eroso egoten saiatuko gara, haserretu eta urduritu gabe, eztabaida antzuetan sartu gabe...

Tailerretan, beraz, norberaren jarrera eta jokabideen gaineko hausnarketa egiten da, hori baita abiapuntua. Besteen jarrerak eta jokabideak epaitu baino gehiago, norberarena lantzen eta aztertzen da. Eta hausnarketa horretatik abiatuta, gu eroso, ongi eta gustura sentitzeko bideak, eta baita teknikak ere, lantzen dira.

TEKNIKAK EDO ESTRATEGIAK

Garbi gera dadila: hemen planteatzen diren teknikak egoera jakin batzuetarako dira egokiak. Euskara dela eta, edo euskaraz ari garelako, norbaitek zakar edo gaizki tratatzen gaituenean, “eraso” egiten digunean edo iraintzen gaituenean, orduan erabil ditzakegu. Egoera normalagoetan ere bai, ziur asko, edo hizkuntzarekin zerikusirik ez dutenetan, baina guk, orain behintzat, “eraso-egoera” horietarako planteatzen ditugu. Imajina dezagun, beraz, euskaraz ari garela eta gure aurrekoa “erasoan” hasi zaigula. Zer estrategia erabili? Hona hemen aukera batzuk:

Galdera itzuli?

Eman dezagun, modu zakar batean galdetu dizutela:

— *Zergatik egiten duzu euskaraz?*

Bada, zure jarrera zuritzen hasi gabe, galdera itzul diezaiokezu, eta zerorrek galdetu:

— *Zuri zer iruditzen zaizu? Zergatik iruditzen zaizu hitz egiten dudala euskaraz?*

Edo

— *Zergatik ez duzu zuk euskaraz hitz egiten?*

Solaskidea pentsatzera eta erantzutera behartzen duzu, eta argudioak eman beharrraren zama berak hartzen du. Gainera, agian pentsarazi ere egingen diozu, eta ez zaio gaizki etorriko.

— *Erradikal hutsa zara!*

— *Eta zer esan nahi duzu erradikal hitzarekin, zehazki?*

“Eta...?” teknika

Zakarkeriaren bat esan digutenean, edo oso inpertinentea den zerbait, edo akusazio kutsua duen kritikaren bat, edo... Eztabaidan hasteak zentzurik ez badu (eta askotan ez du izaten), “Eta...?” huts batekin erantzun dezakegu. Adibidez:

— *Zuek beti berdin ari zarete, txotxolo hutsak zarete!*

— *Eta...?*

— *Horixe, bada, izorratu eta denbora galarazi besterik ez duzuela nahi. Hori besterik ez zaizue inporta! Atorrante hutsak zarete.*

— *Eta...?*

Eta horrela jarraitu, eztabaida pipertuari eta antzuari lekuri eman gabe. Erasoa ari dena zerbait esatera behartzen duzu. Berak defentsiban ikusi nahi zaitu, zure jarrera ezin zurituz, baina “Eta...?” galderarekin akaso lor dezakezu bera izatea buruari eragin behar diona eta arrazoiak bilatzen hasi behar duena. Baliteke hori ez egitea berak, baina gutxienez deskolokatuta geldituko da, eta nahi ez badu ere ohartuko da jarrera patetiko samarra izaten ari dela.

Argudio sokratikoa

Gehiegizko kritika bat egiten digutenean, arrazoi gabea eta neurrigabea, erabil daitekeen teknika da. Kritika horren aurrean, galdera batekin erantzungo dugu, edukazio osoz:

— *Zertan oinarritzen zara hori esateko?*

Edo

— *Nola dakizu zuk hori? Zer datu zehatz duzu hori esateko?*

Galdera horien bitartez, bestea da bere jarrera edo bere esana zuritu behar duena, eta argudioak edo datuak ematen hasi behar duena. Neurrigabeko kritika batez ari garenez, ziur asko ez du izanen esandakoa zuritzeko nahikoa den daturik edo argudiorik, eta bera ere ohartuko da horretaz. Ez digu arrazoirik emanen, seguru asko, baina gaizki pasa edo deseroso sentituko dena bera izanen da, eta ez gu.

Tira, teknika batzuk dira, lagungarri gertatu litezkeenak. Nork bere eran edo neurrian erabil ditzake, eta agian ez dute beti eta denok berdin funtzionatu. Baina askotan oso baliagarriak izan daitezkeela uste dugu, eta zenbait egoeretan gustura gelditzeko ere balio dezakete, egoera horien ondoren (edo aurretik) sentitzen dugun edo gelditzen zaigun ezinegon eta urduritasuna ebitatzeko. Izan ere, ez zaigu iruditzen euskararekin ezinegon eta urduritasun horiek askotan sentitzeak euskara bera asko laguntzen duenik. Nekea sor dezake, eta hobe dugu gure energia hobeki gastatzea, eta bizipoz handiagoa emanen diguten hizkuntza-interakzioak izatea.

BUKATZEKO

Hausnarketaren bidez, eta teknika nahiz bitarteko horiek baliatuta, gure hizkuntza ohituretan aldaketak egin ditzakegu, eta baita gure erabakiak eta jarrerak indartu ere. Kasu honetan, eremu pertsonalaz ari gara gehienbat, eta psikologiatik abiatu-

tako ideia batez. Eta badakigu hizkuntza ez dela kontu pertsonal hutsa, eta soziologia ere badela. Batak ez du bestea kentzen, ordea, eta gainera osagarriak dira. Denon artean euskara berreskuratzeko egiten dugun ahaleginaz gainera, nork bere esparru pertsonalean egiten duena ere eraginkorra izan liteke, eta inguru sozialean fruituak eman.

Badaude, honetaz guztiaz ari garela, kontuan hartu beharreko zenbait ideia garrantzitsu. Hona hemen horietako batzuk, hausnarketarako proposatzen dizkizuegunak:

- Egoera asko aldeztu aurretik aurreikus daitezke: egoera horiei aurre egiteko prestatu egin gaitzake.
- Hizkuntza jokaerak eta ohiturak aldatu egin daitezke.
- Gure jokaera gehien mugatzen dutenak gure usteak, aurreiritziak eta sinismenak dira, eta horiek alda ditzakegu.
- Hizkuntzari eustean eroso eta ongi sentitzea da lortu beharrekoa.

- Jokaera linguistiko asertiboari eustea ez da soilik kontzientzia kontua, dauzka-gun baliabideena baizik.
- Alferrik argudiatzea eta eztabaidatzea saihestu behar dugu.
- Euskaraz hitz egiteagatik ez daukagu azalpenak eman eta gure jokabidea zurrutu beharrik.
- Portaera aldaketek ez dute nahitaez kolpean eta denak batera gertatu behar. Zailtasunaren arabera eta progresiboki ekin diezaiokegu portaera aldaketari.

Honaino, horrenbestez, gaurko hausnarketa. Gai mamitsua eta interesgarria delakoan ekarri dugu hona. Ohi den bezala, inolako doktrinarik emateko asmorik gabe, Marmari aldizkaria saiatu da hausnarketarako aitzakia eta bidea ematen, ekintzarako aurre-urrats edo lagungarri gisa. Irakurlearen esku gelditzen da orain hemen esandakoak edo idatzitakoak go-goan hartu eta lantzea edo bere horretan uztea.

¡Es que soys unos radicales!

¿Y que quieres decir con eso de radicales?



* IPUIN HONEK IRABAZI DU 2008. URTEAN LEITZAKO ALTZADI KULTUR TALDEAK ANTOLATUTAKO IPUIN LEHIAKETA. EGILEA MIKEL ILLARREGI DA.

Erramun Moskurantz abiatu zenekoa

ASPALDIKOA

Aspaldidanik egin asmo zuen bidaiaren hasieran aurkitu zuen bere burua Erramunek. Aspaldiko kontua zen.

Duela hogeita hamar bat urte, Komunisten Ligako jarraitzaileak zirenean, Erramun, garai hartako egunerokotasunean murgildurik, munduan gertatzen ziren egoerez hitz egiteko asmotan elkartzen zen lagunekin. Auzoan betidanik ezagutu zuten taberna kuttunean biltzen ziren. Badaezpada ere, atze aldeko gelatxo batean. Gogoan duen azkenetariko batean, gizar-tearen aldaketa politikoaz aritu ziren, gehienetan bezala. Nahiz eta bakoitzak besteek zer pentsatzen zuten jakin, eztabaidek ez zuten mugarik, gaueko ordu txikitan amaitu arte, edota tabernariak zarata handi samar ateratzen ari zirela esatera etortzen zen arte. Garai hartan, jada, Sobiet Batasunean eskuina eta ezkerra ba ote zen eztabaidatzen zuten. Munduan halako bereizketarik egin ote zitekeen ondorioztatzen zuten. Gizakia Ipar Ameriketako "yankien" eskema pauso azkarretan bereganatzen ari ginela baieztatzen zuten batzuk. Ordura arte erabilitako hizkuntza politikoa, jerga politikoa ez ote zen modaz pasatzen ari, zalantza modura azaltzen zuten beste batzuk. Eta abar, eta abar,... Finean, gizar-te orokorraren dekadentzia, beheerantzko bidea alegia, ailegatzeaz ote zen.

Horrelako diskusio luze, mingarri batzutan baina beharrezkoak beti, iragaten zuten iluntze aldeko orduak.

Horregatik, handik urte batzuetara, Erramunek esperientzia guzti horietaz zer bait gogoratu edota gorde nahian, giro horretako lagunak ere, pixkana galduz edo urrutiratuz joan baitzitzaizkion, Mosku aldera joateko gogoa edo premia hazten hasi zitzaion. Noiz-

bait Moskura joanen zela, zin egin zion bere buruari.

Bizitzak gora-behera asko eta handiak izaten ditu, noski. Neska batekin, Irenerekin, bizitzen jarri zen, baina denbora aurrera zihoran eta denborarekin batera, beraiek eta beraien arteko bizitza eta iskanbila guztiak. Krisialdi ezberdinen ondorioz, bereiztea erabaki zuten.

Ohi den moduan; bortitza eta gogorra. Hilabete batzuk igaro ziren egoera berriaz jabetu zenerako. Egia esanda, ondoren, sasoiko gaztea izanik, hainbat bidaia egin zituen munduan zehar, hurbil samarrekoak edota urrutikoak, baina sekula ez zuen Moskura joateko aukera baztertu.



Atsedena hartu nahian, aspaldiko bidaia egiteko tenorea zela pentsatu zuen. Bidaia agentzietan galdetuz informazioa eskuratu zuen eta trenez egitea deliberatu zuen. Trenez egin behar zuen bidaiak sekulako garrantzia zuen. Ondoren, hara iritsi ondoren alegia, zer egingen ote zuen ez zekien, abiatzea zen lehen helburua.

HENDAIA-PARIS

Hau guztia horrela, halako batean hortxe zegoen Erramun Hendaiaiko tren geltokian. Parisa eramaneen zuen trenaren esperoan. Burdinazko banku hotz batean eserita eta motxila bihurtzen zen poltsa handia alboan, behin eta berriro bidai txartelean jartzen zuena irakurritz, zail gertatzen baitzitzaion guztia ongi ulertzea. Trena ateratzeko bi ordu falta ziren, bi ordu luze, nahiz eta, denbora nola igaro erraz izan, ingurune guztia berri bezain arrotz gertatzen baitzen. Euri zaparrada galantak

botatzen zituen bitartean. Bidaiaren hasierak zer galtzerik ez zuen, oraingoan behintzat.

Esan bezala, Hendaia-Paris zuen bidaiaren lehen etapa, zortzi ordukoa gutxi gora-behera. Eguerdiko hamabiak ziren ia, gaueko hamarretan Parisko geltokian gaua non pasa arakatzen arituko zen, hurrengo eguneko goizeko seietan berriro trena hartu



arte.

Boz-gailutik, berak hartu beharreko trenaren berri azaltzen ari ziren: "Eguerdian bidaiariak. Hemendik hamar minutura Parisa doan trena abiatuko da. Ibilbidean, Bordelen eta Tors-en geldituko da eta bakoitzean ordu laurdeneko geldialdia egingen du. Eskerrik asko bidaiari jaun-andereak".

Erramunek bere zakutoa hartuta, laugarren bagoiko 4. gelako 56. eserlekuaren bila igo zen ñabar kolore ajetua zuen trenaren bagoian. Aurrera eta atzera jendea zebilen pasillo estu hartatik. Laugarren gelan topatu zutenean, ia hutsik aurkitu zuen. Gazte bat zegoen 55. eserlekuan eserita leihotik begira. Atea zabaldu zuen eta konpromisoak agurra aire-ratu zuen Erramunek.

-Kaixo!

-kaixo lagun -erantzun zion gazteak irriño bat isuriaz. Zutitu zen eta aspaldiko lagunak, edota aspalditik ikusi gabeak bailiran, bostekoa luzatu zion.

Erramunek zer egin ez zekiela eta zakutoa

goiko apalean oraindik utzi gabe, zakutoa lurrean utzi eta eskua luzatu zion. Esku leun eta txiki xamarra iruditu zitzaion eta *Zer moduz?* esanez agurtu zuen berriro ere.

Berehala hasi ziren solasean. Trena mar-txan jarri zenerako, elkarri, batak besteari nongoa zen eta nora zihoan kontatu zioten.

....

-Egia esanda, ez dakit zenbat denborara-ko atera naizen. Ez dakit noiz itzuliko naizen. Beno, gehienez sei hilabete ditut libre. Ordu-rako bueltatu behar dut eta bitartean Mosku-ra iritsi eta gero auskalo! -kontatu zion Erra-munek.

-Ba, nik aste bat pasatu behar dut Parisen. Ez dizut esan baina, seminarista naiz eta Eu-ropako seminaristok egun hauetan "Boka-zioa eta etorkizuneko Eliza" lelopean jardunaldia ospatuko dugu. Oso kezkatuta egoteko moduko egoera bizitzen ari gara kristauok... -jarraitu zuen gazteak.

Eta "seminaristak" hitz egiten zuen bitar-tean, nahiz eta begiak bere aurpegira zuzen-du, burua libre utzi zuen beste pentsamendue-tarako. Hobe esanda, harrituta zegoen zein egoera berezian aurkitzen zen sumatuz. Egia ote zen gertatzen ari zena? Sartu bezain laster berriketan hasi eta isildu gabe segi eta segi. Egia esanik elkarriketa baino bakarriketa zen hura.

Minutu askoan, ibilbidearen kilometro as-koan, seminarista, Julen izenekoa, mintza eta mintza aritu zen. Erramunek bitartean, leiho-tik begira batzuetan, hutsik zeuden eserlekue-tara bestetan, ez zion ia jaramonik egiten. Baina halako batean, egoeraren erritmo mo-notonoa hautsi nahian bat-batean galdetu zion:

-Zenbat urte dituzu?

-Nik? - galderarekin erantzun zion.

-Bai, noski. Hemen nik dakidanez besterik ez dago, ezta?

-Duela hilabete pare bat hogeita hiru urte egin nituen.

-Gaztea benetan. Ez zaituztet ulertzen -gehitu zuen ohi baino ozenago.

-Ohituta gaude horretara, horrelako esa-eretara- erantzun zion seminaristak lasaita-sun osoz. Zu nork ulertzen zaituela uste duzu bada? -jarraitu zuen. *Ez zaitut ezagutzen bai-na ziur nago, tren batean sarturik, bakarrik eta Mosku alderantz zoazela jendeak baleki, inork gutxi ulertuko zintuela.*

-Beno, hori nire arazoa da. Arazoa edota erabakia...-jarraitu zion baina lehia bateko asaltoa galdu izan balu bezala.

-Eta nirea ez ala?...

.... Beno dena den, ez dut honetaz orain gehiago hitz egiteko gogorik. Beste modu ba-tean pentsatuta neukan bidaia hau. Barkatu baina ez dut jarraitu nahi. Eta bagoiko komu-nera joateko itxura egin zuen modu azkar ba-tean besaulkitik altxata.

-Lasai. Hala ere, antolatu gabeko bidaia egin nahi zenuela ez al duzu esan? -gehitu zion irribarre maltzur batez Tours-era iristen ari zirenean.

Komunerako bidean bere aurpegiaren isla ikusi zuen leihoan tunel batetik pasatzerakoan. Orduan bere irudiari begira, *irabazi dizu*, esan zion.


Itzuli zenean, seminaristak berak hartu zion komunerako txanda, beste irribarre mal-tzur bat boteaz, bere irudiko, behintzat.

Denbora dezente iraun ondoren eta ia lo-karturik zegoela seminarista ez zela itzuli ohartu zen. Halere eserlekuan ezarrita jarraitu zuen, noizbait ondora itzuliko zelakoan.

Ordu eta erdi igarota boz-gailutik Parisa hurbiltzen ari zirela adierazi zuten. Berriz zu-titu eta pasilloko leiho aldera inguratu zen kanpo aldeko gero eta ugariagoak ziren ar-giak ikusiz. Minutu gutxira, trena bigarren anden edo trenbide sarreran geratu zen.

PARIS

Sekula ez zuen horrenbeste jende eta hain ez-berdin zirenak geltokian ikusi. Bere herriko tren "apeaderoa" deitzen zutena burura etorri



zitzaion; hiruzpalau pertsona, eta kito.

Hamarrak eta laurden ziren eta goizeko seiak arte zer egingen ote zuen pentsatzen jarri zen sarrera nagusietako baten ondoko banku batean eserita. Hasieran seminarista ikusiko ote zuen, alde batera eta bestera begiratzen zuen. Ez zion halako zapore onik utzi berare-kin izandako elkarriketak, are gutxiago ere izan zuen amaiera. Horregatik agurtzea ez zi-tzaiokeen inporta. Alperrik, horrenbeste jen-deren artean ez zuen ikusi.

Handia zen oso geltoki hura. Barruko gela nagusiaren inguruan dendatxo pila ikus zite-keen, eta hauek begiratuz eman zituen lehe-nengo orduak. Ondoren jendea ikusteko "es-trategikoa" zen eserleku bat aukeratu zuen eta erdi etzanda, erdi lo, goizalde arte han iraun zuen, tarteka erna, tarteka lo-kuluxkaren bat eginez.

Bostak eta erdietan komunetara abiatu zen aurpegia freskatzera. Bezperako iluntzean bezala, jende andana zebilen batetik bestera, beno orain eta hemen, neurririk gabe; askoz ere gehiago. Denetarik zegoen, ikusmira ere asetzeko lain; tren ezberdinen mugimenduak, hauetatik jaisten eta igotzen ziren pertsonak, geltokian galdurik bailiran gora eta bazterre-tara begira igarotzen ziren despistatuen itxu-rakoak, denbora pasan alde batetik bestera paseoa zebiltzanak, erloju borobilaren orra-

tzen azpian zain zeuden bertako atzerritar itxurakoak, maletaz kargaturik kontsignaren bila presaka iristen zirenak, ... Beherago, txi-libitu batez, irteerak ematen zituen kapela ur-dina zuen gaztea ere ikus zitekeen. Afrikarrak nonahi, asiarrak jatorrikoak beste hainbeste ia eta auskalo nongotarrak ziren hamaika lagun ere. Gorbatadun eta emakume elegante asko ere ez zen falta bazter haietan, han ageri ziren besteekin batera nahasturik. Esan beharrik ez dago zaharrak, gazteak, emakume zein gizo-nezkoak ere, elkarrekin zihoazela amaierarik gabeko kate hartan. Ahaztu gabe eta espero bezala, poliziak etorri bitartean hamaika es-kale ere bazebilen goizeko ordu horietan, po-tetxo edo txano belztuarekin dirua eskatuz. Halere, adinari erreparatuz, hogeita hama-bost-berrogei urtekoak ziren nagusi, nolabai-teko bereizketa egin beharko balitz behintzat. Hori dena aipatu eta deskribatu nahi izan ba-lu, liburu bat egiteko adina kontakizun izanen zuen.

PARIS-BRUSELA

Erramun seiak hamar gutxiagotan Bruselara zihoan tren horiko seigarren bagoian sartu

zen. Kanpo aldeko sarrerako ate ondoan ego-kitu zitzaion bidaia honetarako gelatxoak. Guztia atondu ondoren eta gustura esertzeko asmoa zuenean, bat-batean, izugarritzko alga-ra sumatuz kanpo aldera begiratu zuen eta itxuraz txandal berdineko lau gazte sendo hurbildu ziren. Hartu zenerako bere gelan sartu ziren, eta aurretik adineko emakume bat zetorren eta honen moteltasunari esker gel-diarazi zuten sarrera zalapartatsua.

Oraingo honetan, aurreko esperientzia go-goan zuela, bera aurreratu zen agurtzerakoan eta eskua luzatu ere, luzatu zion, asalto hau ez baitzuen galdu nahi.

-Kaixo. Egun-on guztioi! -esan zuen irri-barretsu. Baina deus esan ez balu bezala, inork ez zion erantzun. Beno, emakume adin-tsuak irri txiki bat itzuli zion, baina hala ere, harriduraz begiratu zuen Erramun.

Trena marxtan jarri zen eta pixkana giroa bere onera etorritz, haserako zalapartak motel-duz joan ziren. Horregatik, Erramun, bere



ahaleginean berriro saiatu zen.

-*Pozik sartu zarete!*-esan zuen, bidaia-lagunen atentzioa bildu nahian.

-*Beno ...* -besterik ez zioten erantzun.

Bazirudien, gelatxo haren ateka igarotakoan pertsonen transformazioa gertatu zela, hain talde zalapartatsua zirudiena, orain isilisilik zihoan, berauen pentsamenduetan murgildurik baileuden.

Azkenik ikasi zuen, Errugbi taldeko errugbilariak zirela, Brest-eko taldekoak hain zuzen, eta Europako final batera zihoazela Bruselara. Batzuk trenez, besteak hegazkinez egin behar zuten bidaia eta nor iritsi lehenago zen apustua. Hala ere, hau guztia hitz erdika atera zien eta eskaini zioten taldeko aldizkariaren artikulua bat irakurrita. Saiatu zen kirolaren inguruan jende askorengan sortzen den itsukeriaz eztabaida luzatzen, baina alferrik, bera bakarrik mintzatzen zen eta besteok, gehienez, buruarekin gogorik gabeko *bai* edo *ez* azaltzen zioten.

Emakumeak ere ez zuen txintik ere ateratzen, aho zabalik zorronka txiki batzuk ere botatzen zituen tarteka.

Hiru ordu eta erdiko bidaia zuten. Hiru ordu eta erdiko pasioa beraiekin behin eta berriro hitz egiten ahalegintzen bazen. Horregatik berak ere, isiltasunari kasu egitea erabaki zuen. Hankak belaur aldean tolestu, besoak gurutzatu eta begiak erdi itxirik bere pentsamenduetan sakontzen saiatu zen.

-*"Bidaia agurgarriak, hemendik hamar minutura Bruselan sartuko gara"* -entzun zen gelatxoko bozgorailutik. Erramun bat-batean esnatu zen, baina bakarrik zegoela ohartu zen. Emakumea eta gazteak falta ziren. Geltokira iritsi aurretik pasillora begiratu zuen, baina inor ez zen ikusten. Hau guztia engainu bat besterik ez ote zen pentsatu zuen eta horregatik bere mailetak begiratu zituen. Hantxe zeuden oso-osorik, ez zioten deus ere lapurtu.

BRUSELAN MUGARIK EZ

Bruselan ordu eta erdiko atsedena besterik ez zuten, eta Erramunek geltokitik atera nahi zuen eta hainbestetan aipatua zen hiri europarra ikusi. Baina leiho zabal eta handietatik ikusten zenaz bakarrik gozatu ahal izan zuen.

Ez zuen alde handirik ikusi, Pariskoarekin alderatuta, jendearen mugimenduari zegokionaz behintzat. Jende gazteagoa iruditu zitzaion orokorrean, hippyen garaiko arrasto gehiago agian. Errugbilariak ikusten ere saiatu zen, baina bat bakarrik ere ez. Frantsesez zen egunkari bat erosi zuen eta ez zekien zergatik. Agian, horrek giroan sartzen lagunduko ziolako-



an. Halere, lehenbiziko orriari begiratu besterik ez zion egin. Itzulpen lanetan hasteko bat ere gogorik ez zuen.

Hurrengo bidaia, eskalak eginez, Rotterdam, Haga, Amsterdam, Hannover igaroaz Berlineraino zen. Entzunaren arabera, hiri "inportanteak", eta den-denak, bidaia bakar batez.

Bere gelatxoan sartu zenean, bere harridurarako bakarrik zegoen eta bakarrik egin behar izan zituen lehen orduak. Nahi gabean, pentsatzeari ekin zion. Orain arteko bidaia-kideak etorri zitzaizkion burura eta honekin batera, hau ere zergatik jakin gabe; bide luzeak, ikaragarri luzeak, amaierarik gabeko denborak, infinitua, infinituaren ideia azken finean.

Norantz zihoan bazekien, nora ez ordea. Bidaia guztiek bizitza berak bezala muga bat badute, baina berak hasitako bidaia definitu gabea ez ezik, infinituaren irudikapen bat iruditzen zitzaion. Infinituak beldur ematen zion, beldurraren laguntzat hartzen zuen. Ezin zuen kontrolatu. Jakinaren edo ezagutza mugatuaren hurrengo zen infinitua. Infinitua ez zen bukatzen edota guk geuk ezagutzen dugunaren mugatik harantz aurkitzen zen. Guretzat ez balego bezala, baina hortxe zegoena. Eta gu zati bat besterik ez ginen, zati mugatua, mugagaberik gabeko denbora horretan. Nola ezagutu? Itxuraz behintzat neurriarik gabekoa dena. Nola neurtu? Zertarako neurtu? Hainbat galdera, eta ezin esan; hainbat erantzun. Hainbat galdera, hainbat jakin-min, besterik ez. Horrela jardun zuen denbora luzez, bere burua ikararazi arte.

Idea, infinituaren itzala zuen ideia, burutik kentzen, baztertzen saiatu zen kanpo aldera begiratzat, bidean ikusten ziren eta azkar pasatzen ziren arbolak kontatuz, baina alperrik, amesgaiztoa bilakatu zen bakartasun horretan. Beldurra nagusitzen hasi zitzaion eta, beragan sortutako ezinegonak eserlekutik al-

txarazi zuen.

LAU EDO SEI?

Atea zabaldu behar zuen unean, neska gazte-txoa, bere mutil laguna izan zitekeena eta gizonez zaharxeago batekin topo egin zuen. Eskutokiari ekin zioten batera, neskak eta biek, atea amen batean zabalduz.

-*Kaixo* -esan zion neskak. *Zein da nire leku?*-jarraitu zuen ezagunak bailiran eta gelatxoari gainbegiratu azkar bat boteaz.

-*Kaixo, nahi duzuna hartu, berdin da, nahikoa toki bada orain, pasabidera noa* -erantzun zion itxuraz baina hitz egiteko modu solteari jarraituz.

Besteak ere, sartzeko ahaleginetan zebiltzala, konpromisoazko "*Kaixo*" labur batez agurtu zituen.

Kanpoan leihatilik kanpo aldera begiratzat zuela, aspaldian utzi zuen erretzeko bizioa gogorazi zuen pentsamendu arin batean. Inoiz ez zen erretzaile porrokatua izan, noski, baina tarteka eta angustia sortzeko halako momentuak ekiditeko edo hobe esanda, gainditzeko, zigarroren bat edo beste gustura erretzen zuen. Gazte garaietako esanahi psikologikoren bat izan zezakeen horrek, baina berdin zitzaion, ez zuen horretan erreparatu nahi. Aurrera begiratzat zuten; oraingo unetik aurrerantz.

Tarteka barrura ere, gelatxoaren barnera begiratzat zuten, gortina itxi ondoren zabalik utzi zuten zirrikitu txiki batetik. Ez zuen denbora gehiegirik pasa kanpoan, barruko giroa interesgarriagoa ote zen sumatuz gelatxoan sartu zen berriro.

Atea zabaldua, seiak, elkar besarkatuta, besaulkien gainean ikusi zituen bera aho zabalik utziz. Inor ez zen asaldatu edo inork gutxiak begiratu zuen atearen krisketa aldera, besterik ez bada ikusmina asetzeagatik. *Sei?* Esan zuen bat-batean. *Nondik sartu dira, ni hementxe nengoen eta...* jarraitu zuen harriduraren harriduraz. Garbi zegoen, tokirik ez zegoen beretzat, ez orain arte bere gelatxo izan zen horretan behintzat. Algara eta zalapartaren artean atea itxi zuen eta ahoa ezin itxi oraindik, besoak leihoko zeharkako burdinaren gainean jarri zituen, kokotsa hauen gainean eta begirada galdu batez, jarraitu zuen den-





bora luze batez.

Aditzen zuenagatik, filma-egileak zirela ondorioztatu zuen. Zein filmetako "artistak" ote ziren ez zuen pentsatu, baina noizbait haiek eginiko filmaren bat ikustea egokituko balitzaio, zer gogora, zer komenta izanen zuen duda izpirik gabe. Artistak ote ziren? Itxurarik ez dute behintzat, gehitu zuen bere pentsamenduetan. Hala eta guztiz ere, orain arteko guztia eta guztiak, berak, Erramunek, sorturiko pelikularako egokiak izan zitezkeen, dudarik gabe.

Orduan, begirada leihoko kristalera itzultia eta bere aurpegi zargaldu samarra ikusi zuenean, erotzen hasi ote zen serio hausnar-teari ekin zion. Gertaera arraro askotxo edo gehiegi ez ote zitzaizkion jazotzen ari aspal-ditik desiragarri zuen bidaian?

Frankfurt aldera zihoazela eta harritu xamar geratu arren, ez zion oraingoz garrantzi gehiagorik eman nahi izan. Ohitzen edota jada pasatzen ari ote zen?

BEGIRADA

Esertzera zihoala, kolpetxo bat aditu zuen atetxoaren kristalean emana.

-Kaixo, libre al daude? -galdetu zion ahots suabea zuen begi iluneko emakume asiarrak edo afrikarrak zirudienak. Ez zuen bereizi ahal izan.

Emakumeak, aurpegia estaltzen zuen buru-zapia goratuta, segundo batzuetan Erramuni begira gelditu zitzaion eta honek ez zuen berehala erantzun.

-Bai. Ee.. ez. Beno, orain arte hementxe zeuden baina alde egin dutela uste dut -esan zion, urdurituta Erramunek. Egia esanda ez dakit, ez dakit berriro etorriko diren...baina ekarritako tramankuluak ere eraman dituzte -jarraitu zuen egoera beretzat berria zen hone-



tatik normal atera nahian.

-Beste gelatxoetan begiratu dut eta denak okupatuta daude -jarraitu zuen begi desiragarriak zituen emakumeak.

-Sartu. Etortzen badira ere, alde egiteko aukera izanen duzu edota izanen dut- erantzun zion ironia puntua jarrita.

-Ez naiz bakarra. Beste hiru badira, lau

gara guztira.

Eta hauek banan-banan agurtuz sartu ziren.

-Arratsaldeon, Ala zurekin jauna- irribarretsu esan zuen bigarrenak.

-Ala-ren izenean, ongi al zaude?-hirugarrenak.

-Kaixo, Ala zurekin -esan zuen lau horietatik zaharrena zirudienak.

Erramuni, lehen une horietan okupazio bat iruditu zitzaion, okupazio fisikoa baino, kontrola ezinezko egoeren okupazioa.

ORAINDIK BIDAIA BADA

Eta aurrekoaz gain, horrela joan ziren Mosku bitarteko geldiune edo geltoki bakoitzaren bitarteko une guztiak; Frankfurt, Warschau, Boczów, Poznan, Warszawa, Konin, Brest eta Moskva.

Hurrengo geltokian geratu eta martxa hartu ondoren, ume txikia, jaio berria zirudien ume negartia egokitu zitzaion gelatxoan. Ondoren, puru txikiak erretzen zituen emakume lodikote bat. Gero, ordenagailua izterren gainean jarri zuen gizon urduri eta fina. Lasterrean zebiltzan ume koxkorrena hurrengoan. Dirua eskatuta bildutakoa kontatzeko bere ondoan eseri ziren hiru eskaleak. Esertzera-koan ileordea kendu zuenarena bestetik. Sue-roko poteari lotuta sartu edo sarrarazi zutene-koa. Izozki handi eta txutxe pilekin sartu ziren galtza motzen barrenean, izter gizenak zituzten bi anaia bizkiak. Eta azkenik, vodka

nean, kanporako atea zabaldu zuen.

Moskuko lurra ukitu bezain laster, txalo zaparrada aditu zuen. Begirada lurretik goratu zuen eta hantxe ikusi zituen ametsetako muns-troak bailiran bidaian desagertutako pertso-naia guztiak; seminarista, errugbi taldekide-ak, haiekin zihoan emakumea, neska gazte hu-ra bere mutil lagunarekin eta filma egitekotan ziren kideak, buru-zapia zeramaten lau ema-kumeak, jaio berria zirudien umetxo negartia eta bere gurasoak, puru txikiak erretzen zituen emakumea, ordenagailuarekin sartu zen gizon fina, lasterrean gelditu gabe ibili ziren umeak, dirua eskatu zuten hiru eskaleak, peluka ken-du zuena, sueroari lotuta sartu zena eta bere senideak, izozki eta txutxez josita zeuden ume lodikoteak eta vodka botilatik edaten jarraitzen zuten lau lagunak. Denak zeuden, inor ez zen falta. Bera ere hantxe zegoen guztien er-dian, zer egin ez zekiela. Galdurik zegoen. Be-no, bat-batean ba zekien zer ez zuen egin be-har; han gelditu, behintzat. Besoak altxa zi-tuen eta Europa guztian aditzeko moduko oihua bota zuen; NI, BANOA !!!!!!!!!!!

SALTO

Orduantxe boz-goailutik entzun zuen; "Entzun! Entzun! Parisa doan trenak oraintxe bertan atera behar du. Txistua jo ondoren ez sartu, trena martxan jarriko baita...". Eta Erramun deus gehiago pentsatu gabe, "munstro" guztien tartetik pasa zen, horiek txaloen antzeko zerbait jotzen zuten bitartean. Salto



botilarekin sartu zen laukotearena.

Bidaiaren hasieratik hamabost geltoki. Hasieratik hamabost geldiune eta hamabost egoera, hamabost pasadizo.

Hala ere, komunean bazuten zerbait guz-tiek, sartu bezala, bat-batean, denak desager-tzen zirela, deus ere esan gabe.

Bidaiak jarraitu zuen amaiera arte, Gorod Moskva jartzen zuen arte; Mosku alegia. Eta bidaiarekin batera Erramun. Bidaiaren amaieraren txistua jo zutenean, Erramunek bere trasteak hartu, jertsea eta txamarra jantzi eta bagoian ba-karrrik zegoela oharatu ze-

erraldoi bat emanez trenaren eskaileran ja-rri zen eta barru aldeko atea zabaldu zuen txistuarekin batera trena martxan jarri zene-an. Ametsa ote zen galdetzen zion bere burua-ri, baina ez, hantxe jarraitzen zuten etorrerako bidaian agertu eta desagertutako guztiak. Kanpo aldean zeuden denak zutik eta zapiak astinduz agur esanez. Berak ere, eseri aurretik, esan zuen; Aio Mosku!!



Leitzaren bila, liburutegian

Herria ezagutzeko modurik onena bertan bizitzea da, zalantzarik gabe. Gaurko Leiza ezagutuko dugu horrela. Baina badaude herria ezagutzeko era gehiago. Gure aurrekoekin hitz egitea da horietako bat, guztiz aberatsa eta emankorra. Eta liburutara, aldizkarietara, bideoetara edo bestelako argitalpenetara jotzea da beste modu bat. Izan ere, Leitzari buruz hainbat gauza idatzi eta jaso da, eta horietako asko eskuragarri daude.

Non, ordea? Bada, gure etxeetan, jakina, baina baita denon etxetat ere har litekeen beste eraikin batean. Liburutegian, hain zuzen ere. Leitzako liburutegian bada Leitzari buruzko informazio ugari, oso interesgarria. Bertakoek nahiz kanpokoek egindako lana dugu bertan jaso eta ordenatua, eta Leitzako herria hobeki ezagutu nahi duenak hantxe dauka aukera ederra ezagutza horretan sakontzeko.

Lantxo honetan, Jose Luis Huarte liburuzainak emandako laguntzari esker, liburutegian Leitzari buruz aurkitu daitekeen informazioa zein den biltzen saiatu gara. Hemen aipatuko ditugun guztiak, hortaz, liburutegian daukazue eskuragarri, nahi izanez gero kontsultatzeko. Ea artikulua honek hara joan eta kontsulta horiek egitera inor animatzeko balio duen, edo, bestela, informazio zehatzen beharrean dabilenari (ikasleak, ikerlariak...) pistaren bat ematen laguntzen duen.

Honatz, bada, osatu dugun zerrenda:

Zerrenda honetan agertzen diren liburuak Leiza dute gai nagusia, Aresorekin batera kasu batzuetan. Bertan, beraz, Leitzari buruzko informazio eta jakingarriri ugari topatuko dituzu.

Aproximación al diagnóstico del medio: Leiza - Areso

EGILEAK: Pedro Oviedo de Sola eta Maitte Plaza Tuñón.

NORK ARGITARATUA: Nafarroako Gobernu Osasun eta Ongizate Departamentua.

1988.

120 orrialde.

GAIA: ingurumena, osasuna.

Areso, Leiza (Nafarroako toponimia eta mapagintza)

EGILEA: Nafarroako Gobernu Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.

1997.

175 orrialde eta mapa tolesgarri bat.

GAIA: Leiza eta Aresoko toki-izenak.

Bertsotan Leitzeraz

EGILEA: Iñigo Ibarra.

NORK ARGITARATUA: Nafarroako Gobernu Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Bertsozale Elkarte.

1999.

GAIA: bertsolaritza.

Leiza: Urtekaria.

EGILEA: Izaga

1990.

GAIA: Leitzari buruzko artikuluen bilduma (1990. urtetik aurrera).

Mapa de cultivos y aprovechamientos de Navarra : Leiza

EGILEA: Nafarroako Gobernu Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamentua.

2002.

GAIA: nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura.

Aio, Leitze!

EGILEA: Mikel Olano Irurtia.

NORK ARGITARATUA: Mikel Olano Irurtia eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea.

2005.

443 orrialde.

GAIA: Leitzako euskara. Hiztegia.

Areso eta Leitzako hizkerak: bertako hitz eta historian barrena

EGILEA: Mikel Olano.

NORK ARGITARATUA: Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernu Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.

1998.

395 orrialde.

GAIA: Leiza eta Aresoko hizkeren deskribaketa.

Leitzako errege erregekinak: (ahoz belarrirako urte altxorretan)

EGILEA: Patziku Perurena.

NORK ARGITARATUA: Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.



1996.
641 orrialde.
GAIA: ahozko literatura, etnografia...

Zerrenda honetan agertzen diren liburuetan Leitzaz ez da aztergai bakarria, baina Leitzari buruzko aipamen dezente eta oso interesgarriak aurki daitezke.

Catálogo monumental de Navarra

EGILEA: María Concepción García Gainza.

NORK ARGITARATUA: Bianako Printzea.
1980-1997.

Casas consistoriales de Navarra

EGILEA: Francisco Miranda.

NORK ARGITARATUA: Nafarroako Gobernua.
1988.

La casa en Navarra

EGILEA: Julio Caro Baroja.

NORK ARGITARATUA: Nafarroako Aurrezki Kutxa.
1982.

Castillos reales de Navarra, (siglos XIII al XVI)

EGILEA: Juan José Martinena Ruiz.

NORK ARGITARATUA: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
1994.

Navarra, castillos que defendieron el Reino

EGILEA: Iñaki Sagredo.

NORK ARGITARATUA: Pamiela.
2006-2007.

Diccionario geográfico-estadístico-histórico de Navarra

EGILEA: Pascual Madoz.

NORK ARGITARATUA: Domingo Sánchez Zurro.
1986.

Enciclopedia general ilustrada del País Vasco.

NORK ARGITARATUA: Auñamendi
1968.

Gran enciclopedia Navarra

NORK ARGITARATUA: Nafarroako Aurrezki Kutxa.
1990.

Geografía General del País Vasco-Navarro

ZUZENDARIA: Francisco Carreras y Candi.
NORK ARGITARATUA: Alberto Martín.
1911-1925.

Atal honetan aldizkariak bildu ditugu. Bertan agertzen direnak aski ezagunak dira, eta informazio asko aurkitu dezakegu haietan.

- Tipi-Tapa.
- Marmari.
- Plazaola.
- Abazabal (Institutuko aldizkaria).
- Udal press.

Aldizkari horiez gain, urteetan zehar Leitzan argitaratu diren hainbat foileto eta agiri ere aurkituko dituzu liburutegian. Bertako arduradunak azalduko dizu, behar izanez gero, zer eta non dagoen.

Orain arte aipatu ditugun guztiak idatzizko dokumentuak dira, paperean jasoak. Bada, noski, bestelakorik. Leitzari buruzko edo Leitzan jasotako ahotsak eta irudiak ere aurkituko dituzu liburutegian, bideo edo DVD formatuan. Honatx zerrendatu ditugunak:

- Leitzako pestak : 1990-1997.
- "40 ordu" pelikula.
- "Hazparneko anderea" antzerkia.
- Ingurutxoari buruzkoak.
- Ithotei buruzkoak.
- Plazako dantzarien saioak.
- Jeiki koralaren emanaldiak.

Zergatik dira txuriak astronauten jantziak?



Ohartu izan zarete astronautak beti zuriz jantzita daudela, ezta? Ez dugu sekula ikusi berdez, lilaz edo beltzez jantzitako astronautarik. Bada, horrek ere badu arrazoi jakin bat, ez da kapritxo hutsa. Eta arrazoa aski sinplea da: kolore beltzak eguzkiaren erradiazioak xurgatzen ditu; txuriak, berriz, islatu egiten ditu. Eta

horrexegatik hautatu zen kolore hori: kapsulatik edo espazioko estazio-tik kanpoan muntaketa-, konponketa- eta mantentze-lanak egiteko garaian, erradiazio kosmiko zuzenek ekar lezaketen kalteetatik babesteko.

Jantzi horiek, jakina, bestela ere badituzte erradiazioen aurkako mate-

rialak eta babesak, baina horretaz gain txuriak izateak babes hori handitu egiten du. Erradiazioetatik babesteaz gain, kolore txuriak espazio kosmikoko tenperaturarekiko babes handiagoa ematen du.

Beste arrazoi bat, bigarren mailakoa bada ere, kolore beltzarekiko kontrastea da. Espazioan zerua ilun ikusten da, eta jantzia txuria izaki, astronauta espazioara “paseoan” ateratzen denean, berarekin kanpoan daudenek edo ontzian gelditu direnek askoz errazago ikusten dute hura.

Kanporako jantzia txuria dela esan dugu. Barrurako, berriz, ez dago arazorik, eta bestelako koloreak ere erabiltzen dituzte. Ez dakigu esaten astronautari bere estetika eta itxura hautatzen uzten dioten, baina badakigu kolore txuriz egotera ez daudela behartuta.

Erradiazioak islatzeko kolore txuria erabiltzea, nolanahi ere, ez da soilik espazioko kontua. Hemen lurrean ere erabili ohi da, esate baterako hozkailu gisa erabiltzen diren kamioietan eta itsasontzietan.

Irakur ezazu hau, mesedez

Inglaterrako uinberstiate batne ikreketa btaen arbaera, ez du axola lertak zer odrenetan idatzita duaden; axola duen bakrara da lehneadbizkio eta aznekeko lertak beren toikan egotea. Gainekaroak gaikizi egon arren, azarorik gabe irarkuri ahalko diutgu. Zertagik? Ez dugluako ltera bakiotza bere horrtean irakrtuzen, osotasun baten patre bat beazla baizik.

Egia al da? Arazorik gabe irakurri al duzu? Berehala ohartu zara testua “arraroa” zela, baina ziur asko nahikoa erraz eta segidan irakurri duzu, hitz gehienak gaizki idatzita zeuden arren.

Bada, irakurri duzun pasarte hori, leitzar batek idatzitako liburu batetik hartu dugu. Javier Tirapuk idatzitako *¿Para qué sirve el cerebro?* liburuan agertzen da, burmuinaren funtziona-

menduarekin zerikusia duten beste hainbat konturekin batera. Izan ere, burmuina objektu benetan interesgarria da, eta gauza benetan harrigarriak eta miresgarriak erakusten dizkigu. Hizkuntza bera ere, zalantzarik gabe, burmuinarekin bete-betean lotuta dago, eta hortxe aurkituko ditugu hizkuntzaren inguruko klabe askoren azalpena.



IKUSI MAKUSI, ZER IKUSI?

Gauzak ez dira beti ematen duten bezalakoak izaten. Bistak, eta pertzeptzioak, askotan engainatu egiten gaituzte. Ezetz? Ea, begira itzazu arretaz honako irudiok eta ondoren esanen diguzu.





Hegan ari dira, edo nabigatzen?



Ongi ikusi al duzu zer jartzen duen?



Marrazkilari trebea, ezta?



A zer espirala! Espirala? Ziur al zaude espirala dela? Ez al dira zirkulu kontzentrikoak?



Bai, ikusten dugun hori eta ebidentea iruditzen zaigun hori ez da beti uste dugun bezalakoa izaten. Horixe gertatzen da erakutsi dizkizuegun irudi horiekin, eta horixe gertatzen da eguneroko bizitzarekin eta gertatzen zaizkigun hainbat gauzarekin. Baietz!

zer diozu?

eta zuk,

Saioa Sagastibeltza



Gosaria: lasai eta poliki, edo presaka eta arin?
Nik lasai eta poliki, dudarik gabe, eguna ongi hasteko.

Sukaldean moldatzen al zara? Otorduak prestatzen, esan nahi dugu, eta ez jaten.

Ni bietan earki, hori bai, neretzat bakarrik baldin bada, xingle-xingle.

Ametsak gogoratzen al dituzu?

Gutxitan, lo zerraldo itten dot eta...bakizo, kontzientzi lasaien abantalle, jeje!

Eta kontatzeko modukoak izaten al dira?

Dittoten amets gutxi, normalen netzat gordezko hobek!

Bizitza honetan nahitaez egin behar duzun zerbait?

Hizkuntza gehio ikasi, kontinente guztitara behin behintzat bidaiatu...baino bueltan beti etxera itzuliz, eh?!

Eta beste bizitza batean egitea gustatuko litzazukeena?

Baserri bat erosi? Bizi hontan behintzat..zalle!
Gure planeta honetatik kanpo, ba al da inor hor barna?

Auskalo! Nik benik, orain eta ingurun gaude-nekin bakarrik kontatzen dot.

Eta zer pentsatuko luke, Leitzan astebete pasa ondoren?

Bizitzeko ingurune zoragarrie dela, nahiz eta nere ustez iniziatiba eta esfortzu pixkoatekin asko hobetu litteken: etxebizitza, lan aukerak, aisialdie, hizkuntze...uff!

Ditxosozko krisiak aldatu al du zure bizitza?

Eztakizo zuk ongi...pentsa, "lan orientatzaile eta giza baliabidetako teknikari" naiz!!

Dena den, nire bizi pertsonalan aldetik benik ezin naiz kexatu...momentuz!

Eta herriko bizitza aldatuko al du ?

Nire ustetan bai, oaindik jende lana eta dirue baditto re...gauzek okertuko diela aurrikusten baita. Dena den, ez naiz ni izanen denak larrituaraziko dittona...ea oker naon!

Gaztea zara, baina beste garai batzuekiko nostalgia zer den ba al dakizu? Sentitu al duzu dagoeneko?

Earrari in diozo galdera!

Kanpoan asko bizittue naiz (Salamancan, Holandan...) eta herrimine askotan eduki dot; baino gaztaroan aurea joan eta lan mundun borroka ittea egokitzen zaizonen...zein ez litzeke haurtzarora bueltatuko? Hoi bai dela egi-tazko nostalgie!!

Eta etorkizunean pentsatzen al duzu, edo momentua bizitzen duen horietakoa al zara?

Beti eduki behar die planak, helburuk... baino nire ustetan askoz hobe da momentukoa bizi eta, ahal dien erabakirik onenak hartuz, ingurukoekin pozik bizi eta disfrutatzen saiatzea. Uff!Ze filosofikoak jarri gan, ez?

Jose txo Txoperena

Gosaria: lasai eta poliki, edo presaka eta arin?

Lasai eta poliki

Sukaldean moldatzen al zara? Otorduak prestatzen, esan nahi dugu, eta ez jaten.

Hobe jaten

Ametsak gogoratzen al dituzu?

Bai

Eta kontatzeko modukoak izaten al dira?

Batzuk ez

Bizitza honetan nahitaez egin behar duzun zerbait?

Santiagorako bidea bizikletaz

Eta beste bizitza batean egitea gustatuko litzazukeena?

Espaziora bidaiat bat

Gure planeta honetatik kanpo, ba al da inor hor barna?

Dudarik gabe

Eta zer pentsatuko luke, Leitzan astebete pasa ondoren?

Herria bizirik dagoela, bizitza handiko herria da

Ditxosozko krisiak aldatu al du zure bizitza?

Momentuz ez

Eta herriko bizitza aldatuko al du ?

Dagoeneko batzuri aldatzen ari zaio

Gaztea zara, baina beste garai batzuekiko nostalgia zer den ba al dakizu? Sentitu al duzu dagoeneko?

Badakit zer den, gertatzen dena da lehen gazteagoa nintzela, baina ez naiz hagitz nostalgikoa

Eta etorkizunean pentsatzen al duzu, edo momentua bizitzen duen horietakoa al zara?

Nik uste adinarengatik eta nere egoerarengatik etorkizunean pentsatzen dudala; lehen ez.

